

ESP. KODEA. 2025HIKU0018	
ESPEDIENTEA	KULTURAKO HITZARMENAK
TITULARRA	CHURRUCA GONZÁLEZ JAVIER
TOKIA	BEASAIN

ALKATEAREN EBAZPENA

GAIA.- BEASAINGO UDALA ETA ANDRE MARI ZERURATUAREN PARROKIAREN ARTEAN 2025ERA KO BEASAINGO ANDRE MARIAREN JASOKUNDEKO ELIZAKO HORMA-PINTURA ERRENAZENTISTAK KONTSERBATZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO SINATUTAKO HITZARMENAREN ALDAKETAREN EBAZPENA. ORDAINKETA.

AURREKARIAK

1.- Beasaingo Udalak eta BEASAINGO ANDRE MARIAREN ZERURATZE PARROKIAK

urteko lankidetzak hitzarmenaren aldaketa sinatu zuten 2026ko urtarrilean helburu honekin:

- **Lehenik.** 2025ean sinatutako hitzarmenean aurreikusitako 130.000 €ko dirulaguntza, ondorengo ekitaldiei eragozteak eta horren ondorioz, ondorengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko erabiltzea:
 - 60.000 €, 2024an egindako gastuentzat
 - 70.000 € 2025ean eta 2026aren lehenengo hiru hilabeteetan egindako gastuentzat.
- **Bigarren.** Gastuak zurrizteko epe muga, 2026ko apirilaren 15a izango da.
- **Hirugarren.** Ordainketak egiteko modua:
 - 2024.ari dagokion 60.000 €ko dirulaguntza, hitzarmen-aldaketa hau formalizatu ostean egingo da, alde aurretik ordainketa-ebazpena Alkate andreak emanda.
 - 2025/2026.ari dagokion 70.000 €ko dirulaguntza, osotasunean, zurrizteko egin ostean ordainduko da.



Hau guztia ikusirik, eta apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 s) artikuluan xedatutako ahalmenaz baliatuz, Alkatea naizen honek, egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz

EBAZTEN DUT

Lehenik.- 2024 ekitaldirako, **BEASAINGO ANDRE MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**ren alde aurrekontuan [REDACTED] kontusailean izendun gisa, hitzarmenaren aldaketaren arabera dirulaguntzaren **60.000,00€** ordaintzea.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri Udaleko Kontuhartzaitzari ematea ordainketa egin dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen honen eta bidezkoak diren helegiteen berri ematea

Leire Artola Ugalde
Alkatea

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título: 2025HIKU0018-Ebazpena EU/Resolución EU (CHURRUCA,GONZÁLEZ,JAVIER)

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:



LEIRE ARTOLA UGALDE

Alkatea
La Alcaldesa

Data / Fecha: 2026/02/02 16:39:41